

# Bakerako Hezi neba-arreben arteko gatazkak konponduz



- Familia baten neba-arreben arteko harremanak eskola ezin hobea dira norberaren garapenerako gatazkak modu positiboan konpontzen ikasteko.
- Abiapuntutzat hartzen den oinarrizko premisa da gatazka gizakien harremanen berezko errealitatea dela.
- Ikerkuntzakk egiaztatu du gatazkei aurre egiteko gaitasuna hezi daitekeela, eta gatazkak hezkuntza aukera bilakatzeko estrategiak existitzen direla, bertan parte hartzen duten guztiak aberasteko.

# Irizpide orokorrak



- Neba-arreben arteko gatazka, hezkuntzaren irizpideen arabera erabiltzeko denbora baino gehiago behar da erreprimitzeko baino.
- Ahal den neurrian, egokiena gatazkan ez sartzea eta hurrek euren kabuz konponbidea gida dezaten.
- Seme-alabei gatazkek konpontzeko eredu bat proposatzen badiegu hura praktikatu behar dugu familiaren arteko gatazkei aurre egin behar diegunean.
- Eredutzat proposatzen ditugun gatazkek konpontzeko ereduekin koherente eta egonkor izan behar dugu.

# Neba-arrebatxo bat jaiotzen denean (I)

- Zeloan arazoa zerbait natural bezala ulertu behar dugu eta ez diogu garrantzi gehiegi eman behar.
- Ez dugu ahaztu behar jarrera bat jeloskortzat jotzea, beti interpretazio bat dela: ez dugu beti ohiz kanpoko edozein jarrera jeloskortzat jo behar.
- *Eragindako zeloak* saihestu: neba-arrebatxo bat jaiotzen denean umeak izango dituen jarrerari aurrea hartu.
- Tronua galdu duen umeari bere frustrazioa zuzenean eremu sinbolikoen edo sorkuntzaren bidez adierazteko bidea eman (panpinak, marrazkiak edo ahozko adierazpenak).



# Neba-arrebatxo bat jaiotzen denean (II)



- Gurasoekiko umeak duen lotura ondo ziurtatu, jarrera jeloskorra prebenitzeko.
- Hezteko lanetan aita gehiago inplikatu neba-arrebatxo berri bat jaiotzean, umeak galduko duen arreta konpentsatzeko; beste pertsona batzuek ere eginkizun hori gara dezakete.
- Antolatu tronua galdu duten umeek amarekin zituzten elkarrekintza uneak ez galtzeko moduan.
- Umeari neba-arrebatxo bat izango duela jakinarazi eta familiaren eguneroko bizitzan izango dituen ondorioak azaldu.
- Neba-arreba bakoitzari bere adinaren araberako betekizuna eman neba-arreba berria jaio ondoren.

# Neba-arrebatxo bat jaiotzen denean (eta III)

- Tronua galdu duten umeak haurtxoaren zaintzan inplikatu, gehiegizko erantzukizunik eman gabe.
- Zeloan adierazpenei ez eman duten baino garrantzia gehiago eta ez harritu; kontuan izan horiei esker, umea beste pertsonen egoera emozionalez, nahiez, asmoez eta premiez jabe daitekeela, bere garapen intelektuala eta soziala sustatuz.



# Eraso fisikoaren aurrean

1. Erasoa eten egin
2. Deskribatu egoera nahi ez den egoera bezala
3. Elkarrengandik urrundu aldi baterako
4. Gatazkari berriro eutsi elkarrizketaren bidez.



- Erasotzailea ez zigortu fisikoki.
- Erasotzaileari berari arretarik eman barik jarrera oldartsuak bestearengan izandako ondorio txarretan zentratu: eragindako kalteaz ohartarazi eta inori ez zaiola hori gustatzen adierazi.
- Neba-arrebetako bat ez tratatu biktima bezala, arazoa bakarrik konpontzeko bereganako konfiantza osoa duzula adierazi.

# Neba-arreben arteko norgehiagokaren aurrean (I)

- Gatazka ez erreprimitu, zerbait natural bezala onartu eta eguneroko bizitzak dituen gatazkatxoak aprobetxatu adostutako soluzio sortzaileak proposatzeko.
- Gatazka ez erreprimitu argudiorik erabili gabe, irtenbiderik gabe eta gida bat eskaini gabe utziz.
- Bat ez datozen jarrera duten umeak ez lotsarazi, soluzioa eztabaidatu.
- Ez onartu eraso fisikoan, ahozko erasoan edo inposatutako indarrean oinarritutako soluzioak.
- Zigor bat inposatzen bada, zuzendu nahi den gertaerarekin lotuta egon behar du. Ez kendu gertaera horrekin erlazionatuta ez dauden pribilegioak.



# Neba-arreben arteko norgehiagokaren aurrean (eta II)

- Gatazka deskribatu, hainbat konponbide proposatu eta neba-arreben esku utzi azkeneko konponbidea.
- Ez aurkeztu neba-arreben aurrean euren gatazken biktima bat bezala, adibidez, gaixotasunaren bat eragingo dizutela esanez (“*nirekin akabatuko duzue*”).
- Umea, intelektualki bestearen ikuspegia kontuan hartzeko gai bada, lau urte inguru dituenean, bere nahiak beste baten nahiekin bat egiten dituzten proposamenak eskaini; adib.: orain bere txanda da eta ondoren zurea, berak ere zuk sentitzen duzuna sentitzen duelako.





# Bibliografía

- Arranz, E. (1989). *Psicología de las relaciones fraternas*. Barcelona: Herder.
- Arranz, E. eta Olabarrieta, F. (1998). Las relaciones entre hermanos. In M.J. Rodrigo eta J. Palacios. *Familia y desarrollo humano*. Madrid: Alianza.
- Arranz, E. (2000). Interacción entre hermanos y desarrollo psicológico: una propuesta educativa. *Innovación educativa*, 10, 311-331.
- Arranz, E. (2002). Conflicto, Antropología, Psicología y Educación. XV Congreso Mundial Vasco. Akta: Eusko Ikaskuntza or. 241-252.
- Arranz, E., Artamendi, J. A., Olabarrieta, F. eta Martín, J. (2002). Family context and theory of mind development. *Early Child Development and Care*, 172, 1, 9-2.
- Díaz Aguado, M. (1997). *La Envidia*. Madrid: Aguilar.
- Ortigosa, J. (1999). *El niño celoso*. Madrid: Pirámide.